

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 2ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Zerga premiazko araugintzako dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2021 Zerga premiazko araugintzako dekretua, azaroaren 2koa. Arabako zerga araudira egokitzea ez egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan egindako aldaketak, eta premiazko neurriak hartzea energia elektrikoaren ekoi-zpenaren balioaren gaineko zergan eta elektrizitatearen gaineko zergan.

– **Foru Dekretua:**

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 51/2021 Foru Dekretua, azaroaren 2koa. Arabako Babes Zibileko Batzordearen osaera eta funtzionamendua onestea.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 645/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Kontrako irizpena onestea Arabako Batzar Nagusiek aintzat hartzeari buruz Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 45/1989 Foru Araua eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren uztailaren 44/1989 Foru Araua aldatzeko foru arau proposamena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 646/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Pelayo Serrano Viteri aholkularitza bereziko eginkizunak dituen behin-behineko lanpostua uztea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 647/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Sonia Vargas Benito aholkularitza bereziko eginkizunak dituen behin-behineko lanpostua izendatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 648/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetara duen ordezkariak berritzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 649/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 650/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Arabako Foru Aldundiaren ekipoetan instalatutako Microsoft Office 365en lizentzien harpidetzaren berritzea Makesoft Technologies SLri esleitzea, 252.648,00 eurotan, BEZa barne. Gauzatze epea: 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte.

Foru Gobernu Kontseiluaren 651/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Arabako ostalari-tzaren sektoreari laguntzeko 2021eko ezohiko laguntzen deialdiaren ebazpena.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 652/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Behin betiko onestea ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa, Artziniegako udalerrirako egina.

Foru Gobernu Kontseiluaren 653/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Esleitu gabe uztea Arabako Foru Aldundiarentzat, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearentzat, Gazteriaren Foru Erakundearentzat, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoarentzat eta Indesa 2010 sozietate publikoarentzat aseguru polizak kontratatzeari dagozkion 1., 4., 6. eta 7. Loteak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 654/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea konpromiso kreditua sortzeko 22/2021 espedientea, gastu egoerako "Sare inbentarioa" izeneko partida sortu berrian, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 655/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea konpromiso kreditua sortzeko 29/2021 espedientea, gastu egoerako "Mainstreaming Estrategia ALH" izeneko partidari, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 656/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea, kreditua gaitzeko 25/2021 espedientea, 599.060,00 euroko zenbatekoaz, "Hiriko hondakinen gaikako bilketa kudeatzea" izeneko partida funtsez hornitzeko, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 657/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea, 152/2021 kreditu transferentziaren espedientea, 529.269,43 euroko zenbatekoarekin, "Nekazaritza Azpiegiturak Hobetzea. Aparteko deialdia" partida funtsez hornitzeko, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 658/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioarekiko lankidetzaren hitzarmena berresteko foru arau proiektua. Hitzarmenaren xedea: oraingo AP-1en eta A-1en arteko Armiñongo lotunearen bi noranzkoetan sarbide adarren edukiera handitzeko obrak finantzatzea eta gauzatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 659/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Kontratazio espedientea onestea "Arabako Lurralde Historikoan bidaiarien herri arteko erabilera orokorreko errepideko garraio publiko erregularraren zerbitzu emakida (C-03 Bilbo-Iruña)" prozedura irekiaren bidez kontratatzeko, 21.498.471,74 euroko aurrekontuaz, BEZa barne, eta 10 urteko gauzatze epearekin.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 660/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Amurrioko Udalarari zuzeneko dirulaguntza ematea, herri horretan dagoen etxebizitza komunitarioa kudeatu eta mantentzeko, baita horretarako hitzarmena izenpetzea ere.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 661/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea nekazaritza usiatietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako 2021eko laguntzen aparteko deialdia, ekaineko eta uztaileko ekaitzek kaltetutako bideak konpontzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 662/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Kontseiluaren uztailaren 3ko 360/2018 Erabakiaren bidez onetsitako enpresa planaren aldaketa (esp.: 04-2018-10).

Foru Gobernu Kontseiluaren 663/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea mahasti zaharrak mantendu eta zaintzeko dirulaguntzen ebazpena, zeinen deialdia Kontseiluaren apirilaren 13ko 14/2021 Foru Dekretuaren bidez egin baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 664/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Hasiera ematea Kontseiluaren abuztuaren 3ko 496/2021 Erabakia ofizioz zati batean berrikusteko prozedurari.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 665/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Gazteriaren Foru Erakundearen lanpostuen zerrenda onestea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 666/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Gazteriaren Foru Erakundearen 2021erako enplegu publikoaren eskaintza onestea.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 667/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko dirulaguntza lerro bat esleitzea.